

IRABAZI ITURRIAK

Gure zerbitzua beharrezkoa da kasu konkretu batzuetan eta oso lagungarria izan ahal da beste batzuetan. Beraz, bezeroak ordaindu nahiko dute gure zerbitzuak erabiltzearren.


Gaur egun online ordaintzen da, hau da web guneetan zure txartelarekin ordainketa egiten duzu. Ordainketa hau askoz erosoagoa da diru fisikoarekin ordaintzea baino, Paypal, Bizum edo beste online baliabideekin. Gure bezeroek ordaindu behar duten guztia ordaintzen badute, berdin zaigu nola ordaintzen diguten, aldi batean edo ordainketa zatikatuen bidez... nahi duten moduan ordainduko dute eta nahi duten momentuan.

Gure enpresak lortuko dituen diru sarrerak, bi iturri ezberdinetatik datoz. Alde batetik, gure bezeroen erosketetatik (beherako zehaztuko ditugu gure zerbitzuak erabiltzeagatik ordainduko dituzten prezio ezberdinak) eta beste aldetik gure babesleen diru laguntzetatik eta donazioetatik (hau ere beherako azaltzen dugu).

Hasiera batean, gure lehiakideek dituzten prezioak jarraituz, antzeko prezioak jarriko ditugu. Horrela, bezeroak lortuko ditugu eta behin gure enpresa merkatuan finkatu ostean, gure ospea eta esperientzia handitzean, prezioak igotzea daukagu pentsatuta.

Jarraian gure enpresak bezeroei eskaintzen dizkien prezio eta zerbitzu ezberdinak zehaztuko ditugu:

- **Itzultzaile estandarra: Turismorako eta historia kontuetarako, adibidez foro erromatar batera joaten bazara —> 50€/orduko**
- **Itzultzaile enpresarioa: Enpresen negozioetan (enpresarien arteko elkarizketetan) ekonomia arloan jakintzak eukin behar ditu, adibidez bi herrialde ezberdinen artean dauden enpresariak elkartzen dira----->70€/orduko**
- **Itzultzaile politikoa: Politika arloan espezializatua izan behar da—>120€/orduko**



Hurrengo taula honetan, gure enpresak hasierako hilabeteetan espero ditzakeen diru-sarreraren estimazio bat egitea erabaki dugu, gutxi gora behera nola jua daitekeen argi izateko.

	Itzultzaile estandarra	Itzultzaile enpresarioa	Itzultzaile politikoa
Kuota	50€/orduko	70€/orduko	120€/orduko
Kontratuak	10	10	10
Orduak	5	4	4
Guztira	2500	2800	4800
Soldatak	1500	1680	2880

Gastuak	Prezioa eurotan
Argia, internet	40€
Alokairuak	450€
Sponsorrak	500€
Ordenagailuak, pantailak etab.	1500€
Irabaziak	2550€